


Osatu zerbitzua probarako TicketBAIn eskuragarri

TicketBAIren proba ingurunean eskuragarri dago OSATU zerbitzu berria, BIHra (Berehalako Informazio Hornidura) informazio osagarria bidaltzeko

TicketBAIren XSD eskeman ez dira jaulkitako fakturen BIH zerbitzuko eremuetako batzuk. TicketBAIren OSATU zerbitzuak informazio hori bidaltzeko aukera ematen du, eta, beraz, zerbitzu berri horren bidez berri emanez, informazioa automatikoki bidaliko da jaulkitako fakturen BIHra.

Laster argitaratuko da zerbitzu berri horri lotutako araudi eta dokumentazio tekniko guztia. Bien bitartean, egokitu behar diren softwareak lehenbailehen egokitu ahal izateko, garapenekin hasi ahal izateko informazioa aurreratzen da.



Hauak dira OSATUn jasotzen diren eremuak (zergadun askok ez dituzte behar):

Osaturen XMLan bete beharreko eremuak:

OSATU Beste zerga datu batzuk	Kanpoko erreferentzia			Alfanumerikoa (60)	Kanpoko erreferentzia. Eduki libreko datu gehigarria, zenbait bezero aplikazioi bidaltzen dutena (kontabilitateko idazpena, etab.)	
	Higiezinak	Higiezinaren xehetasunak	Higiezinaren egoera	Zenbakizkoa (1)	Higiezinaren egoera zehazten duen identifikatzailea	
			Katastro erreferentzia	Alfanumerikoa (25)	Higiezinaren katastro erreferentzia	
	Eskualdaketaren zenbatekoa BEZari atxikitako higiezinak				Dezimala (12,2)	BEZari lotutako higiezinaren eskualdaketaren zenbatekoa
	Ordez kariaren IFZ				IFZ formatua (9)	Erregistro liburuaren titularraren ordez kariaren IFZ
	Ordez kariaren IFZ Kontrako alderdia				IFZ formatua (9)	Erregituraketa eragiketa baten ondorioz ordez kariaren IFZ
	Erabakiaren erregistro zenbakia Fakturazioa				Alfanumerikoa (15)	Fakturazioaren edo erregistro liburuaren arloko baimen zenbakia
	Oinordetutako erakundea	Erakundearen xehetasuna	IFZ	IFZ formatua (9)	Berregituraketa eragiketa baten ondorioz oinordetutako erakundearen IFZ	
			Abizenak Izena Sozietatearen izena	Alfanumerikoa (120)	Berregituraketa eragiketa baten ondorioz oinordetutako erakundearen izena-sozietatearen izena	
	Kupoiak				Alfanumerikoa (1)	R1 edo R5 motako fakturan kupoiak, hobariak edo deskontuak emateagatik zerga oinarria gutxitzen den zehazten duen identifikatzailea, fakturaren jatorrizkoa bakarrik jaulkitzen denean.

*Izan kontuan OSATU erabiltzea aukerakoa dela, salbuespenak salbuespen; hala nola atxikipenik ez duten negozio lokalen errentamenduak.

Zerbitzuaren ezaugarri orokorrak:

- XML fitxategia ez da sinatuta egongo.
- Baliozkotzeak gainditzen ez baditu, fitxategia ezetsi egingo da. Bidaltzaileak arazoak konpondu beharko ditu eta XML OSATU fitxategia berriro bidali beharko du.
- Jatorrizko faktura TicketBAI aplikazioan jaso behar da, errorearik gabe.
- OSATU fitxategi bat baino gehiago bidaliz gero, azken bidalketak aurrekoa ordeztuko du. Hau da, jasotako azken OSATU fitxategiak izango ditu datu zuzenak.
- OSATU zerbitzuaren jasotze baliozkotzeak gainditu ondoren, informazioa TicketBAIn jasoko da, eta prozesu automatiko bat arduratuko da BIHra pasatzeaz.

Gogorarazten dizugu TicketBAIren proba ingurunean aritzeko oinarritzko informazioa [TicketBAIren proba ingurunearen gidan](#) dagoela argitaratuta.

Rest OSATU zerbitzuari buruzko oharra:

1. Probetan egiten diren bidalketek ez dute edukiko zerga ondorioz.
2. Nahi beste bidalketa egin ahal izango dira
3. Proba ingurunearen URLa honako hau da:
<https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/osatu/>
4. Probak egiteko, errebokatuta edo iraungita ez dagoen ziurtagiri homologatu bat behar da.

Bidalitako fakturak kontsultatzea – OSATU informazioa bidaltzea eta kontsultatzea

Zergadunak aukera izango du OSATUren bidez bidalitako informazioa "Bidalitako fakturak kontsultatzea" web aplikazioan kontsultatzeko.

"Fakturaren xehetasuna" atalean sartuta, hemen sar daiteke:

OSATUko informazioa kontsultatzeko.

Eta aplikazio horretan OSATUrako informazioa eman ere eman ahalko du, faktura "Aldatu" aukeran sartuta.